


BALOREZKO PROPOSAMENA

Datozen urteetan aurreikusten da Espainiako biztanleriaren batez besteko adina nabarmen igoko dela; izan ere, 65 urte eta gehiagoko biztanleria guztizkoaren % 26,0 izango litzatekeela 2037. urtean. Argi dago gizarte-talde horrek biztanlerian eta gizarte-mailan garrantzi handia hartuko duela; hala ere, ez dituzte behar guztiak erabat asetuta, eta horrek herrialdearen gizarte-garapena erabat motelduko du. Horien artean, nabarmentzekoa da gehienek bizi dituen bakardade-egoera, hau da, arazoa ez da soilik biztanleriaren batez besteko adinak gora egingo duela, baizik eta bakarrik bizi diren adinekoen ehunekoa ere oso kezkarria dela, kontuan hartuta denok helduko garela adin horretara, eta gero eta aukera gehiago dugula bakardade atsekabegarri batean bizitzen amaitzeko.



Adituek sarritan azpimarratu dute beharrezkoa dela aukeratutako eta **nahitaezko bakardadeak** bereiztea. alarguna izateagatik, adibidez. Bakardadeak, hala ez dirudien arren, ondorio larriak ditu osasunean. Adineko pertsonengan gizarte-isolamendua ekar dezake eta tristura edo beldurra eragin, baita depresioa edo beste gaixotasun neurodegeneratibo batzuk garatu ere. Gizaki sozial garen aldetik, beste pertsona batzuekiko harremana funtsezkoa da gure osasun fisiko eta mentalerako. Esan liteke gure artean behar dugula elkar biziraun ahal izateko. Lagunarteari esker, kolektibo bateko kide sentitzen gara, eta babesa eta maitasuna ematen digute.

Sociedad

España ha rebasado el umbral de los dos millones de mayores de 65 años que viven solos en España. Son casi la mitad de los 4,7 millones de hogares unipersonales, [según los datos del Instituto Nacional de Estadística](#)

Honi beste arazo oso kezkarri bat gehitzen zaio: Espainiako **animalien abandonatze-tasa** Europako altuenetakoa da; izan ere, Affinity Fundazioaren ikerlanean ("Él nunca lo haría 2022") jasotako datuen arabera pasaden urtean 285.000 txakur eta katu inguru biltzen zituzten Estatu osoko babesleek. Nahiz eta lehen begiratuan askok pentsatu ez dela hain arazo larria, benetan hala bada. Animalia abandonuak eragin zuzena du gizartean, abandonatu duena zu ez izan arren. Ekonomikoki, abandonatutako animalia batek bilketa-zerbitzu bat eta babes-zerbitzu bat behar ditu, eta bertan erakunde publikoek ordaindutako pertsonak lan egiten dute. Eta hori gutxi balitz, abandonatutako animaliek hainbat gaixotasun transmiti ditzakete, hala nola amorrua edo sarna, azken horren berragerketak izan dira egun hauetan Euskal Herrian, eta gizakiarengan ere eragina duten bizkarroiak baitaude.

[La tasa de abandono de animales en España es una de las más altas de Europa](#), con alrededor de **285.000 perros y gatos recogidos al año por protectoras en todo el territorio estatal, según las cifras recogidas por el estudio "Él nunca lo haría 2022"** de la Fundación Affinity.

In aeternum →“Betierekotasun osorako”

Halaber, guk, enpresa gisa, **bi arazo horiei konponbide berritzailea** emateko modua aurkitu dugu. Horretarako, gure enpresa bi sektore nagusitan banatzen da: etxez etxeko zerbitzu publiko bat, eta kafetegi pribatu bat. Gure zerbitzu publikoa eta etxez etxeko doakoa udalaren bidez eskaintzen den zerbitzu bat izango litzateke. Animalia-konpainia bat eskaini nahi zaie etxean bakarrik bizi diren adinekoei, arrazoi batengatik ezin direnak egoitzetara edo eguneko zentroetara joan, baina, jakina, sozializatzeko premia naturala ere badute. Horretarako, gure enpresako langile profesional batek maskota bat eramango luke adineko pertsonen etxeetara (aldez aurretik prestatua eta zaindua izan den animalia jakina). Pertsonak animalia-konpainiaz gozatu ahal izango du, maskota batek behar dituen behar guztiak bete gabe; izan ere, adinekoak direnez, gehienak ezin izango liriateke maskota baten behar guztietaz arduratu. Gainera, maskota hori zenbait arrazoiengatik etxerik izango ez lukeen maskota bat izango da, dela txakurtegi batean jaioa izateagatik, dela abandonatua izateagatik. Horrela, abandonatutako animaliek sozializatzeko eta maitatuak sentitzeko aukera izatea ere lortuko dugu.

Animalia horiek kontuan hartuta, bertatik ateratzen da gure enpresaren beste zatia: babeslekuetatik etorritako edo abandonatutako maskotak dituen kafetegi bat. Kontuan hartzen dugu animaliak izaki bizidunak direla, pertsonak bezala, eta lagunartea ez ezik, etxea ere behar dutela. Horregatik, babeslekuekin edo txakurtegiekin lankidetzan aritukogara, haien ustez beren bizitzak berregiteko psikologikoki prestatuta dauden animalien ardura har dezagun. Gure kafetegia maskotentzat egokituta egongo da, eta bertaratzen diren bezeroek gure animaliei hainbeste denboran falta izan zaien maitasuna eman ahal izango diete.

Animalien osasun mentala ere kontuan hartzen dugu; izan ere, haientzat ere ez da osasuntsua hainbeste giro aldatzea, zeren, azkenean, animaliak berak negozioa direla irudituko bailitzateke, eta guztiz kontrakoa da, izaki bizidunak dira eta gure negozioaz ere baliatuko dira; benetan nahi duguna gure negozioaren bidez animalien bizi-kalitatea hobetzea baita. Beraz, egoera hori saihesteko animaliak beti etxe berera joaten saiatuko gara konpainia egitera adinekoei, errutina egonkor bat sor dezaten, eta horrela ezegonkortasunik garatu ez dezaten.

Esate baterako, gure enpresaren helburu nagusia argi zehaztu nahi dugu: bi norabideko konpainia eskaintzea geure gizartean baztertuak dauden bi taldeei. Izan ere, adinekoei lagunartea bermatzeak abandonatutako animalien bidez lehentasun osoa du prozesu horretan. Horregatik, gure enpresaren funtsezko zati hau udalarekin kudeatu nahi izan dugu, doako zerbitzua izan dadin eta guztion eskura egon dadin. Alabaina, Bob Marley ezagunak dioen bezala, "diruak ezin du bizitza erosi". Ildo beretik, bizitzea ez da bizirik irautea, baizik eta bizirik sentitzea, eta hori egiteko modurik hoberena konpainiaz inguratzea eta maitatua sentitzea da, eta harremanetan jartzeko eta maitasunerako eskubide natural hori ezin da mugatua izan bakoitzaren gaitasun ekonomikoagatik.

